

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Miren Landa Larburu*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1936)*

Aurkibidea



## Biografia



Igeldon jaio zen  
Eraunzetaundi baserrian, bost  
anai-arrebaren artean  
zaharrena bera. Aita etxe  
hartan jaiotakoa zen; ama,  
aldiz, Aginagako Aitzondo  
baserrikoa. Bai gurasoak bai  
seme-alabak baserritik bizi  
izan ziren beti. Usurbilgo  
Txoko Aldera ezkondu artean,  
Igeldon egiten zuen  
bizimodua, eta Donostiara  
gutxi jaisten zen, Antiguara  
behien esnea hartzaileei  
eramateko ez bazen.  
Elkarrizketa egin genionean,  
Txoko Alden bizi da [Justo](#)  
[Camino](#) senarrarekin.

## Zintak

### DON-128

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data:** 2010-08-05
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Transkribatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

### DON-129

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data:** 2010-08-05
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## Pasarteak

### 1. Urarekin nahasitako behi-esnea

- **Erref:** DON-128/004
- **Iraupena:** 0:05:08. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:07:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

#### Laburpena:

<p>Antigua auzoko Heriz pasealekuan etxez etxe banatu ohi zuen esnea Mirenek; garaian garaiko berdura ere eramaten zuen esnearekin batera.

Aberearekin joaten zen kalera. Marmitak, "neurria" deituriko esnea neurtzeko ontziak... ditu hizpide. Heriz pasealekutik gora 24 villa zeuden, eta udatiarrak han egoten ziren; udatiarrei esne ona ematen zien, besteei urarekin nahastutako behi-esnea. "Kimikoek" esne azterketak egiten zituzten, eta, ura bilatuz gero, esnea bota edota itsuen eskolako mojei ematen zien. Esne-hartzaileentzat adina esne gabe geldituz gero, beste baserritar bati erosten zien esnea.

### Transkripzioa

-Eta geo juten giñan ba goizian esniakin, aberia astua're eukitzen gendun baiña aberia're bai, eta esniakin juten giñan Antigua. Eta ba Antiguan paseo de Herizen ibiltzen giñan, esne partitzen.

-Etkez etxe?

-E? Etkez etxe. Etkez etxe ibiltzen giñan.

-Ta zer zenezkaten bezeruak [...] o?

-Bai, bai bai bai. Guk genezkan ba esne hartzaillak esaten dan bezela. Danai itxea eamaten giñun esnia, eta geo berdura ba beak esaten ziun bueno batek porrua, bestiak azelga, bestiak azenaiyuak, o tomatian garaiyian garaiyian garaiko gauza. Dana prepatzen gendun eta danai esniakin etxea eamaten giñun, berdura dana.

-Eta nola eramaten zenuten?

-Aberiak.

-Baiña marmitetan o?

-Marmitan eskun ta bestian berdura ta, hola. Dana eskuz lana iten zan.

-Ze materialetakuak zian marmitak?

-Marmitak? Ba ez dakit ba nik ze material izango zian e.

-Zer zian, buztia o metala o?

-Ez ez, metala izango zian hoixe, bai metala, metala izango zan, bai. Batzuk hobexuak bestiak txartxuak baiño, metala.

-Haiek zer zian, zuen marmitak haiei uzten zenizkienak o zuek eramanda?

-Ez, ez, guk etxeakuak giñun danak.

-Bai, eta haiei nola ematen zeniyen?

-Haiei ba neurriyakin. Bat zan litrokua eta bestia zan litro erdikua. Eta litro erdikua, gehiyenian guk litro erdikua ibiltzen gendun. Eta esne asko ibilli bihar zunak ba litrokua're ibiltzen zun. Eta bai ba. Segun. Geo beraneantiak etortzen zianian udaran, ba iten zuen ez dakit Joxebakin baiño, han villak zian, hoita lau villa. Hoita lau villa.

-Zer zian, villak?

-Villak hogeita lau.

-Nunguak zian?

-Paseo de Herizen goora junda. Han hogeita lau villa zian. Eta iten zuen askok ba udaran beraneantiak etortzen zian, ta beak jeisten zian behera, bodega, bueno bodegan prepatua zauken sukalde ta dana, ta goiyen ba kanpoko jendia sartzen zan, jartzen zan bizitzen, udaran. Hairi esne ona eamaten giñun, bestiai ura dana botatzen ziyen e.

-A bai?

-Bueno! Ez al da egiya hoi? Danai ura botatzen zuen dana! Eta geo batematek deitzen zun Antiguoa, deitzen zun: "Hara! Baijuala kimikua Antigua! Hor dezue e!". Donostiko...

-Kimikua?

-Kimikua esnia analizatzea. Eta han ibiltzen giñan korrika batea gorde ta bestia gorde ta al zuna baiña harrapatzen zitun beti, harrapatzen giñun.

-Ze gorde baiña, ze gorde?

-Gorde marmitak! Ura botata eoten zian-ta! Harrapatzen giñun ta eamaten ziguen zeara, Antiguoko plazaa. Elizan onduan plaza? Ta harea eamaten

giñun. Ta han txarra baldin bazeon ba beonen aurrian e, bota iten zituen, bota. O bestela zien hor ez dakit honek ezautuko zitun, paseo de Herizen itxun kolejiyua bazan, itxun kolejiyua zan zean, kuartelan parian, bestaldetikan. Bai itxun kolejiyo, kolejiyo haundiya zan hua gaiñea. Eaman, mojak jutun zian berrogei litroko marmitakin. Eta guk gure parrokiyan partitzeko esnia txarra eta mojentzako ona. Ta haik eamaten zituen marmita bete ta, haik jango zituen ordun arroz con leche o txokolatia ta nik ez zakiñat zer jaten zituen, haik eamaten zuen, esnia! Eta bueno, hola ibiltzen giñan.

-Baiña, esne harekin, ura zeukan esne harekin, bazeon itia arroz con lechiak-eta o ze?

-Ingo ez zendun ba! Zenbat ur izango zun ba? Botako giñun bai, botako giñun baiño ez esajeratun behintzat.

-Ta gustuan sumatzen al zan?

-Nik ez dakit, guk etxian esnia eaten gendun e, klaro, esnia ona eaten gendun etxian! Baiño ohitura danekua zan hoi e. Hoi jenerala zan, jenerala zan. Geo jutun zan lechero bat Agiñetikan, goiko etxekua, Martzelino, eta harek eamaten zitun berrogei litroko marmitak, hari ezautu nixkon nik aurreneko. Jutun zan zeara, aber esaten deten, zer da ba... Rich pasteleya, ba Rich pasteleyan bestaldetikan gelditzen zan, klaro, geo hartzen zixkan hari ez dakit zenbat esne, Muttein andria, ahizpa, arrebak, hua Antiguokua zan. Muttin, hua Antiguokua da. Eta haren arrebak hartzen zixkan, harek'e parrokiya klaro esnia partitzen ibiltzen zan hua're, ta geo basarritarrak falta balin bagenun ba harena jutun giñan. Ez [...] etxetik eamandakua.

-Gizonezkoa: Honen zean, zearako este, bee klientelai zeatu, eosi in bihar.

-Eosi in bihar gendun esnia.

-Ta halare irabazten ateatzen ziñaten?

-Bueno ez dakit irabazten zan o ez zan, "no sé". Ordun iten zan basarritarrak iten zun dana beria balu bezela, oain ez dona. Esan nahi nuke berdurakin, esniakin, oain ez daude holako gauzak.

## 2. Gurelesari eman behar esnea

- **Erref:** DON-128/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:07:53. **Bukatu:** 00:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

### Laburpena:

<p>Gurelesa sortu zenean, baserritarreitarrak esnea banatzen uzten zien, baina Gurelesari parte bat ematera behartuta zeuden. Derrigortu egin zituztela dio.</p>

### Transkripzioa

-Geo jarri zuenian Gurelesa, Gurelesa jarri zuenian obligatu ziun basarri bakoitzai, basarritar bakoitzai uzten ziun esnia partitzen, baiño honbeste litro, Gurelesa entregatu bihar giñun.

-Ta hori?

-A, ba obligatu in ziguen, basarritar guziri. Bai.

-Eta zeñek obligatu?

-Gurelesak, Gurelesak, Gurelesako nausik izango zien, noski. Ta gure aitak esaten zun, zu ez dakit goatzen zean baiño hoik, presa haundiya in zuen Gurelesako onduan, uran presa. Bai in zuen ta: "A 'con que' guk ura botatzia txarra ta hoik aurreneko lana presa in diyek!". Ta batematek esan diyo: "Bai baiño presa hoi marmitak garbitzeko omen da". Toma! "Eran listos". Gu holaxe ibiltzen giñan klaro, han junda ta.

-Ta Gurelesana nola izan zan? Noiz iritsi zan?

-Nik ez dakit, hoi urte asko da e, "obligao, era obligao, obligao, sí, sí, sí, sí".

-Baiña hori, obligaziyo ze, zeñek?

-Ba zenen gaiñian zan ba, gui jarri ta bildurra sartu ziyon jendiai ta, danak han txintxo asko han juten giñan.

-Gizonezkoa: Zertako eaman bihar zuen hau, Gurelesa esnia? Baiño jarri zuen "por narices".

-"Sí, sí, sí".

-Baiño ze legen bat atea zan o?

-Nik ez dakit bai, legia bezela, lege bezela.

-Gizonezkoa: Bai ba. Honea ekar zazue o bestela ez dezue iñun zabalduko.

-Hoi ba, hoi esan nahi zuen, ez dizugu utziko iñun esnia partitzen, zabaltzen. Ta zuek obligaziya honea ekarri bihar dezue /biaezue/, bakoitzak. Eta hala ibiltzen giñan.

### 3. Txerrijana

- **Erref:** DON-128/006
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:09:28. **Bukatu:** 00:10:12

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

#### Laburpena:

Txerrijana biltzen zuen. Txerrijana apartatu egiten zen: ona ganaduari ematen zioten jateko. Eskuz apartatzen zituzten hezurak eta soberakinak, bota egiten zituzten.

### 4. Marmitak, xaboia eta "kokua"

- **Erref:** DON-128/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:12. **Bukatu:** 00:11:47

#### Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

#### Laburpena:

Egunero garbitu behar izaten zituen marmitak. Ura eta xaboiarekin garbitzen zituen marmitak. Antiguak, xaboi lantegi bat bazen. Xaboitik "kokua" ere ateratzen omen zen lantegi horretan: abereei jaten emateko tableta batzuk ziren, uretan jarri eta dena arrotzen ziren.

### 5. Josten ikasteko gogoa

- **Erref:** DON-128/010

- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:18:59. **Bukatu:** 00:20:48

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

#### **Laburpena:**

Igeldotik toki guztietara oinez joan ohi zen, bidetxurretik. Igeldotik Antiguara ia ordubeteko bidea zegoen oinez. Mirenek josten ikasi nahi zuen, eta esne-bezero batenean hasi zen "corte y confección" ikasten amari esnea partitzen lagundu eta gero, baina Zubiaurretik deitzen zioten lanerako eta josten ikasteari utzi behar izan zion.

### **6. Igeldoko eskola**

- **Erref:** DON-128/011
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:23:04

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

#### **Laburpena:**

Igeldoko plazan zegoen eskola. Maisu-maistrak erdaldunak ziren. Kanpora ateratzen zirenean, umeek euskaraz egiten zuten; ez zien galarazten. 'Cara al Sol' egunero abesten zuten. Mutilak eta neskak aparte ikasten zuten. Gaiztakeriak: maistrari liburua harrapatzen zioten...

### **7. Garai bateko Igeldo**

- **Erref:** DON-128/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:25:01

#### **Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

#### **Laburpena:**

Garai bateko Igeldo nolakoa zen aipatzen du. Ez zen kale etxerik, baserriak ziren denak. Frontoian aritzen ziren jolasean. Miren umea zela, gerora taberna izango zen tokian Falangea egon omen zen.

### **8. Guardia zibilak tropan**

- **Erref:** DON-128/016
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:32:49

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Polizia

#### **Laburpena:**

Antiguako kuarteletako guardia zibilak tropan joaten ziren Igeldora. Baserrik baserri ibiltzen ziren guardia zibilak.

## 9. Kalerako joerarik ez

- **Erref:** DON-128/017
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:33:42

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea

### Laburpena:

Kaletarrekin harreman gutxi izaten zuten. Esnea partitzera joaten ziren haiengana. Gurasoek ez zuten kalera eramaten, ezta hondartzara ere. Ezkondu eta gero jakin omen zuen Donostiko berri. Su artifizialak ikusten zituzten Igeldotik.

## 10. Estropadetan, "Monte Igeldo"ra

- **Erref:** DON-128/018
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:35:10

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Arrauna

### Laburpena:

Estropadetan, "Monte Igeldo"ra joaten ziren. Nolako tiobiboak zeuden: "montaña rusa", labirintoa, uretako txalupak... Hartz bat eta tximinoak ere baziren.

## 11. Igeldoko erretorea eta konjutorea

- **Erref:** DON-128/025
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:43:56

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

### Laburpena:

Miren gaztea zela, don Fabian Loidi oriotarra zen Igeldoko erretorea, eta konjutorea, berriz, don Martzelino. Negu partean, euskarazko antzerkiak antolatzen zituen Loidik Igeldoko neska-mutilekin. Opariak ere zozketatzen zituzten. Konfesio garaian, gazte denak konjutorearengana joaten ziren erretoreak arrosarioa errezatzeke agintzen zielako. Don Fabian Loidiren aurretik, don Migel izan zen erretorea. Dotrina garaian, latigoarekin ibiltzen omen zen. Zigorrak.

## 12. Amona eta arrosario garaia

- **Erref:** DON-128/028
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:48:28

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Amona, aitaren ama, etxean bizi zen. Emakume ona zen, baina "xuxena". Amonak etxeko lanak eginarazten zizkien, "neskei behintzat". Arrosarioa erreztatzen zuten amonarekin. Lau osaba sakramentinoak izan ziren. Mirenek ez zituen ezagutu, baina haien kide baten bisita izaten zuten baserrian aldian-aldian.

**13. Abere begi bakarra**

- **Erref:** DON-128/029
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:48:28. **Bukatu:** 00:49:59

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

Etxeko abereak. Nola hitz egiten zioten: iso, arre... Esnea partitzera zihoala, begi bakarreko abereak otarrakada piku eta marmita bete esne bota zizkion..

**14. Astarraren arrantza eta "zeladorearen" isuna**

- **Erref:** DON-128/030
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:51:51

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena:**

Etxeko abereak. Astar bat ere bazuten. Donostian ukuiluak non zeuden aipatzen du. Goizean esnea partitzen zebilela, astoa arrantzaka hasi eta "zeladoreak" (munizipalak) isuna jarri zion Mireni.

**15. Aita Ondarretako kartzelara**

- **Erref:** DON-128/032
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:52:23. **Bukatu:** 00:56:08

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Mirenen aita Ondarretako kartzelan egon zen. Ferietan asko ibiltzen zen aita: ostegunean Hernanin, astelehenean Tolosan, asteazkenean Ordizian... Feria horietako batean bagoneta bat erosi zuen, eta, antza, ostutako bagoneta bat zen... Aita atxilotuta nola eraman zuten kontatzen du.



## 16. Jurnaleroak

- **Erref:** DON-128/033
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:56:08. **Bukatu:** 00:57:40

### Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

### Laburpena:

Baserri handia zen, eta jurnaleroak hartzen zituzten baserriko lanak (sagarrek biltzeko, garoa ebakitzeko...) egiteko. Orduko hainbesteko bat ordaintzen zien. Igeldo bertako jendea izaten zen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-02

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com